



# ainguruak

## NOR ARI DA

Koloretan azaltzen dira gaurko berriak  
bizi den iluntasunaren paradoxa gordina

Ogi apurrak banatzen ari direnak  
lepoak estutzen dituzten berberak

Nor ari da errugabeen oinak izozten  
nor ari da egunsentia amatatzen  
nor ari da, nor ari da

Antzoki makabro honetako orkestra-burua  
sarraskiaren erritmoa zuzentzen maisua

Oholtzatik sehaska kantak ari dira abesten  
plazako protesta gura lokartu daiten

Nor ari da jendearen berba itotzen  
nor ari da amildegirantz bidea eraikitzen  
nor ari da, nor ari da

Nor ari da itxaropena lurperatzen  
etorkizuna erailtzen  
Nor ari da jaioberriak kondenatzen  
delitu hau lege bihurtzen  
nor ari da.

Musika eta hitzak: Inun

## QUIÉN

Aparecen en color las noticias de hoy  
cruda paradoja de la oscura realidad

Los que reparten migajas de pan  
los mismos que asfixian.

Quién enfría los pies de los inocentes  
quién está apagando la aurora  
quién, quién

El director de orquesta en este macabro teatro  
maestro en dirigir el ritmo de esta masacre

Desde el escenario están cantando nanas  
para adormecer así las ansias de protesta en la plaza

Quién está ahogando la palabra de la gente  
quién diseña el camino directo al precipicio  
quién, quién

Quién está enterrando la esperanza  
asesinando el futuro  
Quién está condenando a nuestros recién nacidos  
convirtiendo en ley este delito,  
quién.

Música y letra: Inun